

Emakumeen kirolari
buruzko aldizkari digitala
Revista digital sobre
deporte femenino

19

Ekaina • Junio
2022



Arabako Urrezko Emakumeak Alavesas de Oro



“Arbitrajeak asko
eman dit maila
pertsonalean”

Andrea Díaz de Otazu (Gasteiz, 1994)
saskibaloiko jokalaria eta entrenatzailea
izan zen arbitrajearen aritzeko erabakia
hartu baino lehen. Kirola beste
ikuspegi batetik ikusteak erakarri du
esparru batera, non jendeak gutxien
ulertzen dituen jardunean aritzen
baitira. Arabako enpresa
batean egiaztapen lanak
egiten dituen langile honek
hartan profesionalki jarduteaz
amesten du, baina nahiago du
eguneroko ikaskuntzaz gozatu
eta bere lekuan kokatu. “Oinak
lur gainean izan beharra dago”
dio segurtasunez.



araba álava
foru aldundia diputación foral

Nola hasi zinen arbitrajea?

Txikitatik hasi nintzen saskibaloian jokatzeko. Ia nire bizitza osoa 20 urte bete arte. Egia da jendea behar zela gazteak arbitratzeko, eta ni beti animatzen nintzen. Une batean ikastaro bat atera zen, eta probatzera animatu nintzen. Esperientzia erabat desberdina da. Haurrak ere entrenatzen nituen. Dena bateratzea ezinezkoa zenez, arbitrajearen alde egin nuen, gustuko nuelako. Nire bosgarren denboraldia da hau, eta kategoria guztietako partidak zuzentzen ditut Bigarren Nazionalera arte.

Nolakoa da kategoriaz igotzeko prozesua?

Arabako Batzordean hasten zara. Arbitratu egiten duzu, ebaluatzen zaituzte, eta gero Euskal Batzordera igarotzen zara. Hartara, kategoria nazionalak eta euskal ligak ere arbitratzen dituzu, nik egiten dudana bezala.

Arbitrajea emakumea izatea normala al da jada?

Bai, orain bai. Lehen, egia da gizon gehiago zegoela, baina ari da orekatzen. Gero eta emakume gehiago daude.



Dedikazio profesionala izatea gustatuko litzazuke? Zer ekarriko luke?

Zer amets daukan bakoitzak. Azkenean, jende guztiak nahiko luke kategoriaz igo eta hor goian egon talde handiak arbitratzen. Baina beti izan behar dira oinak lurrean eta jakin non zauden. Nahiko nuke, jakina! Urratsez urrats joan behar da. Zeinek jakin une egokian zauden eta benetan ondo egiten ari zaren.

Asko sufritzen da irain bat entzuten duzueneko edo zuen lan txarra modu txarrean zalantzan jartzen denean?

Nire kasuan, hau hobya da. Gustatzen zaigulako gaude hor. Gozatzeari uzten diozunean edo partidetara joatea kostatzen zaizunean, nago uztea pentsatu behar duzula. Niri ez zait kostatzen, gozatu egiten dut. Egia da partida batzuk beste batzuk baino zailagoak direla. Baina denetan ikasten da, ez soilik alderdi teknikoei dagokienez, baita giza alderdiei dagokienez ere. Une jakin batzuk kontrolatzen jakiteaz ari naiz. Aurten, aukera izan dut selekzio txapelketetan egoteko beste lankide batzuekin, eta bizipenak partekatzen dituzu beste pertsona batzuekin. Arbitrajearen barruan mundu bat dago.

Erabakiren batean huts egin duzula dakizunean, nola egiten diozu aurre?

Argi dago partida batzuetatik sentsazio onarekin ateratzen zarela eta beste batzuetatik, berriz, txarrarekin. Azkenean, partida bakoitzean ikasi egiten duzu, baina ezin duzu inoiz etxera eraman. Kantxatik irteten eta kito. Lana bezalakoa da. Ez du eraginik izan behar zure bizitzan. Jakina, nahastu egiten gara, eta jokalariei ikusarazi nahi diegu pertsonak garela, bi begi ditugula, eta errore marjina bat dagoela. Niri, hasieran, kostatu egiten zitzaidan onartzea oker nengoela. Ekin-tzaren batean akatsak egiten ditugu, jokalariai bakarrik dagoenean tiro libreak huts egiten duen bezala. Denok huts egiten dugu.

Zer da zailagoa haurren kategoriak arbitratzea ala pertsona nagusiagoenak?

Suposatzen da zenbat eta nagusiagoak izan orduan eta maila handiagoa dutela. Ukipek askoz hobeto ikusten dira. Baina kategoria bakoitzaren mailara egokitzen gara. Ezin da berdin arbitratu kadeetan edo seniorrean. Egia da arautegia betetzeko dagoela, baina zein talde diren aurkariak ere izan behar da kontuan.

Nolabaiteko kezka dago Araban epaile gutxi daudelako. Zer dela eta?

Jendeari kosta egiten zaio probatzea. Lehengo, hurbildu eta eza-gutu deatela. Gustatzen ez bazaie, denbora dute uzteko. Baina gomendatu egiten dut, maila pertsonalean asko aberasten zaitu eta. Inoiz biziko ez zenituela pentsatuko ez zenituzkeen egoerak jasaten laguntzen dizu. Gainera, beste modu bat da ikusteko betidanik egin duzun kirola. Beste aldean jartzea da, eta barruan zaudenean, asko baloratzen duzu arbitroen lana. Konturatzen zara zein konplexua eta



zaila den. Guk hilero egiten ditugu arautegi azterketak, eta denboraldiaren hasieran proba fisikoak egiten ditugu. Jardun egin behar dugu eta prest egon.

Zertan dautza azterketa horiek?

Ikastaroaren ondoren, idazkari azterketa bat egin behar duzu, bai eta arbitro azterketa bat ere. Euskal Batzordera iritsita, hilero egiten dugu azterketa bat, arautegia beti garbi edukitzeko. Konstantziaz jardun behar da, kontzeptu guztiak beti argi edukitzeko. Araban, askotan bakarrik arbitratzen dugu, eta horrek esan nahi du zeuk egin behar duzula bidea eta non zauden jakin behar duzula. Ematen dizuten aukera bakoitzetik ikasten behar duzu.

Esposiziopean sentitzen al zarete, askotan bakarrik arbitratzen duzuelako eta ez duzuelako zalantzazko erabakiren bat berrikusteko teknologiarik?

Arabako Batzordean idazkari bat eta arbitro bat gabiltza. Euskal Batzordean lehen mailako bi arbitro eta bizpahiru idazkari gabiltza. Egia da kide batekin arbitratzeak segurtasun handiagoa ematen dizula, baina hain gutxi gaudenez, Araban bakarka arbitratu behar dugu. Egokiena litzateke bi arbitro joatea, pertsona bakar batek ezin duelako biren gauza bera ikusi.

Nolakoa zara pistan? Gustuko duzu jokalariekin hitz egitea?

Hori taldeen eta pertsonen araberakoa da. Jokalari edo entrenatzaile bat heziera onarekin hurbiltzen bazait eta galdetzen badit zergatik ez dudan adierazi falta, arazorik gabe erantzuten dut, baina modu txarrean etortzen bazaizkit, distantzia jartzen dut. Bizitzan bezala da. Batez ere, heziera onarekin jokatu behar da.

Zergatik animatzen duzu jendea mundu honetan sar dadin?

Ni animatu egin nintzen, eta esan behar dut arbitrajeak asko eman didala. Kideak, esperientziak eta lagun handiak eman dizkit. Talde batean bezala. Gu arbitraje talde bat gara. Jokalari eta entrenatzaile asko izan gara, baina arbitrajea beste etapa bat da eta zure kirola ikusteko beste ikuspegi bat ematen dizu. Oso aberasgarria da. Desberdin ikusten da, ez hobeto, ez okerrago. ●

Arbitrajearen hastapenak saskibaloian

Naismithen –saskibaloio jokoaren sortzailea– egindako lehen hamahiru arauak oinarri-oinarrizkoak ziren, eta abiatzen ziren jokoaren ukipenik gabekoa izan behar zuelako printzipioetik, eta horrek arbitro berrien zereginak mugatzen eta sinplifikatzen zituen neurri handi batean.

Jatorrizko saskibaloia arbitro batekin nahikoa zeukan arau eskas horiek aplikatzeko, eta arbitro horrek ez zuen mugitu beharrik bere eginkizunak betetzeko.

Gaur egun, munduko liga garrantzitsuenak –NBA, FIBA, Euroleague eta ACB– hiru arbitro arbitratzen dituzte, egungo jokoaren konplexutasun eta abiadura izugarriagatik.

Galdera hau egiten dugu: nola bilakatu da hainbeste gure kirola, batez ere kirol gehienekin alderatuta?

Printzipioz, esan daiteke saskibaloia egungo jokoak ez daukala zerikusirik Naismithen sortutako jatorrizko jokoarekin: jatorrizko hamahiru artikulua 50 artikulutan banatutako zortzi arau bihurtu dira, eta lege gorputz oso bat



erantsi zaio arbitrajearen, aktak egitearen edo ekipamenduaren teknikari buruzko arautegiari.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte jokoak ez zuen bilakaera nabarmenik izan. Garai horretan hasi zen aldatzen, eta joko taktikak sortzen hasi ziren, eta, aldi berean, handitu egin zen jokalarien ekintzen abiadura. Horrek bigarren arbitroa sartu beharra ekarri zuen, lehenengoarekin lankidetzan aritzeko partidaren zuzendaritza lanetan.

Bigarren arbitro hori sartu izana ez zegoen araututa idatzizko inongo arauen

bidez: garai horretan, ia ez zegoen pilotarik gabeko jokorik, eta bi arbitroak baloia gainera jokoari baino ez zioten erreparatzen.

Zelai erdiko ertzetan kokatzen ziren, jokalarien jokoaren oztopatzen ez zuten lekuan, eta ia ez ziren handik mugitzen,

«Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte jokoak ez zuen bilakaera nabarmenik izan.»

beste taldeak erasotzean zelaiz aldatzeko soilik. Arbitroak ere beren posizioak trukatzen hasi ziren falta pertsonalak edo biren arteko jauziak zehatu ondoren, horrela taldeak ez ziren kaltetzen arbitro berak beti jartzeagatik zehapenak, eta hori gertatuko zatekeen posizio aldaketa horiek egon ezean.

Gaur egun, jokoa egiteko abiadura askoz handiagoa da orduan baino. Jokoa oso bizkor bilakatu da azken urteotan. Entrenatzaileek taktika berritzaileak garatu dituzte, jokalarien erresistentzia fisikoa areagotu da, lehen ukipenak ez ziren ohikoak, baina orain oso sarritan egiten dira, eta beste ekintza batzuk ere ugaritu dira, non arbitroek, arauen arabera, zenbait ukipen onartu ahal izateaz gain onartu egin behar baitituzte, ikuskizunaren mesedetan. Gero eta ekintza gehiago ebaluatzen dira eta arbitroen posizio estatikoa nabarmen eskasa da. Gainera, hurrengo koadranteari gainetik begiratuta, non talde kirolen arteko konparazio azterketa bat egiten baitugu (metro koadroak eta jokalaria kopurua), banakako interakzio espazioa ondoriozta genezake, eta konturatzen gara zer ukipen ugari dagoen saskibaloian espazioa kontuan hartuta. Horregatik, oso garrantzitsua da erantzukizunak banatzea arbitroen artean eta ekintzak argi eta garbi ikustea. Bizigarritasun espazio hori erdira baino gutxiagora murrizt genezake,

kontuan hartzen badugu jokoa bi pista erdietatik batean baino ez dela garatzen (aurrealdeko zelaia) eta eremu mugatu bat dagoela (hiru segundoko eremua). Jokalarien dentsitate altu horrek dakarrena da beste kirol batzuetan baino errazago izatea ukipenak jokalaria bakoitzak dituen irudizko zilindroen artean eta, ondorioz, beharrezkoa da ekintzak gertutik ikusi ahal izatea, arduraduna nor den zehaztu ahal izateko eta, behar izanez gero, zehatu ahal izateko.

«Gero eta ekintza gehiago ebaluatzen dira eta arbitroen posizio estatikoa nabarmen eskasa da.»

Hartara, joko maila horrekin laurogeiko hamarkadaren erdialdean, FIBAK arbitraje teknika bikoitzeko eskuliburu bat egiteko premia planteatu beharra izan zuen. Alde batetik, gure zereginaren kalitatea hobetzen lagundu behar zuen, eta, bestetik, arbitroek elkarri traba egitea saihestuko zuen. Orduan banatu zen jokalekua sei laukizuzenetan, zeinak, baloia non dagoen, arbitroen erantzukizun eremuak zehazteko balio baitute, eta kokapen eta seinaleztapen ekintza guztiak arautzen dituzte.

ARBITRAJE TEKNIKAREN PRINTZPIOAK:

Kokapena
Seinaleztapena
Elkarlana

Sistema horren bidez azkenean lortzen dena da arbitro batek baloidun jokoa kontrolatzea eta besteak baloirik gabekoa; hau da, bi arbitroek baloiaren alde borrokatzen ari diren bi jokalariei arreta emateari uzten diote, eta lana banatzen dute, hamar jokalaria kontrolatzeko asmoz. Eta laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, ikusita ekintza asko ebaluatu gabe uzten zirela, ez zirelako ondo ikusten jokalarien tamainagatik eta exekuzio abiaduragatik, arbitraje hirukoitza pixkanaka agertzen hasi zen, eta, azkenean, etorkizuneko apustu handia izan zen munduko arbitrajerako. Hirugarren arbitroa sartu ondoren FIBAk txapelketa batzuetan, ACBn eta Euroleaguen, hiru arbitroen mekanikarako eskuliburua argitaratu zen 2001ean, NCCA ligako printzipio berberak aplikatuz. Arbitraje teknika, oro har, hiru funtsezko printzipiok osatzen dute, eta haiek modu espezifikoan aztertu eta azalduko ditugu. Printzipio horiek osotasun bat osatzen dute eta osotasun horrek arbitroek beren lanean dituzten premiak adierazten ditu: kokapena, seinaleztapena eta lankidetzeta.

Iturria: Espainiako Saskibaloia Federazioa



Non ikas eta goza dezakezu kirol honetaz?

Jar zaitez harremanetan

Saskibaloiko arbitroen Arabako batzordearekin



**SASKIBALOIKO ARBITROEN
ARABAKO BATZORDEA**
COMITÉ ALAVÉS DE
ÁRBITROS DE BALONCESTO

KIROL ETXEA
Zerkabarren, 5
01001 Gasteiz, Araba
945 13 41 90

arbitros@caabnet.com
www.caabnet.com



dxtfem.com/alava/

**EL SITIO QUE TE INFORMA SOBRE
EL DEPORTE FEMENINO EN ARABA**

**ARABAKO NESKEEN KIROLARI
BURUZKO LEKU**



Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

araba álava
foru aldundia diputación foral



web.araba.eus/eu/kirola